

“Arteak beste errealitate batzuk sortzeko aukera ematen du”

Julen Garcia Muelarekin solasean



Jonan Maioz Basterretxea
Eduki sortzailea

Jasotze data: 2019-12-14
Onartze data: 2020-01-03

Julen Garcia Muela (Beasain, 1993). Ama Nati, aita Manuel. Gurasoak 1991n Beasainera joan ziren bizitzera Kordobatik. Ikasketak La Salle San José Ikastetxean hasi zituen Beasainen. Beasaingo Txindoki Alkartasuna Institutuan Batxilergo Artistikoa egin eta gero, Leioan Arte ikasketak egin zituen 2011 eta 2015 bitartean. 2015ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatutako Kalostra Arte Eskola esperimentalean parte hartu zuen. Azkeneko urteak Kordoba hiriburuan pasa ditu. 2019an Tabakalerako artista egoiliarra izan da.

Jonan Maioz: Kontatu artea sortzeko asmoaren inguruan jasan duzun aldaketa sakonen bat edo batzuk. Ikuspuntua aldatu dizun zerbait.

Julen Garcia: Artea sortzeko ideia fakultatean ezagutu nuen; aspaldi sumatzen nituen interes jakin batzuk, baina artista gisa identifikatzea beranduago iritsi zen, unibertsitatetik ateratakoan, nahiz eta artearekin zerikusia duten interes batzuk betidanik izan ditudan.

Niretzat inflexio-puntu handiak izan dira, bai fakultatean sartzea eta baita ateratzea ere. Lehenengoan, artetzat dugun horretarako espazio eta egitura jakin batzuk aurkitzen dituzu; nolabait, testuinguru batean kokatzen zaitu, eta interes bera duten pertsona asko ezagutzen dituzu, funtsezkoa den zerbait. Fakultateko lagunekin jarraitzen dut oraindik egunerokotasuna konpartitzen.

Ateratakoan, gizartera bueltatu eta konturatzen zara zein espazio gutxi duen artearen eginkizunak bertan. Pultsua hartu behar zaio arteari eta gogorra da, besteentzat hutsala den eginkizun bat dela ulertu behar duzu. Horrek dena aldatzen du.

JM: Azken boladako lanek intentzio zehatzen bat dute? Ehiztari baten tokian jarri, nonbaitera apuntatu duzu?

JG: Niretzat intentzioa beti berbera da: artetik jaso dudana bueltatzea. Erakusketa batean zerbaitek hunkitzen zaituenean, egiteko gogo ematen dizu, etxera iritsi eta lanean jarraitzekoa. Jasotako sorkuntzaren bulkada hori bueltatzea izan daiteke nire intentzioa.

JM: Maitasuna zure buztina dela iruditzen zait. Gezurra ala egia da?

JG: Esan genezake, baietz. Sortzen duzunean maitatua sentitu nahi duzu, beste pertsona batenganaino iritsi. Aldi berean, sortzeko prozesu horretan maitatzen duzu zure erreferentean lana. Adibidez, zerbait egiten ari zara eta pentsatzen duzu: «irudi hau Isa Genzken-i gustatuko litzaioke?» horrelako harremanak lanean zehar izaten dira.

JM: Taldean egin duzun lan bat deskribatuko zeniguke?

JG: Gehienetan beste pertsonekin edo beste pertsonentzat lan egin dudana arren, kostatzen zait taldeko lan gisa ikustea. Artearen lana indibidualtzat dut, nire praktikan behintzat, erakusten duzunaren ardura zurea baita. Beste pertsonak (lagunak normalean) teknikoki erabiltzen ditut: distantzia hartzen laguntzen didate. Momenturen batean, adibidez, ez dakizu bideo bat nola egin eta beste pertsona bati ematen

diozu kameraren rola, eta berak erabiltzen duen teknikak bideoa bideratzen laguntzen dizu.

JM: Bizitzeko, artea sortzeko beharra duzu? ura edan eta jatea bezala? Nik arteak zu behar zaituela uste dut.

JG: Baietz esango nuke. Artea nire errealitatearekin harremanetan jartzeko erabiltzen dut, errealitatea kudeatzeko balio dit askotan. Eta lanean egon gabe denbora asko pasatzen badut, konturatzen naiz zerbait falta zaidala. Nolabait, errealitatez asetzen naiz, artearen bitartez kudeatzen ez badut. Zentzu terapeutiko hori du niretzat. Horretaz konturatzen zara arte instituzionalaren testuingurutik ateratzen zarenean. Erakusketa bat duzunean edo arte-egoitza batean zaudenean, konturatzen zara artea egiteak zentzu bat duela: emaitza bat. Hortik kanpo, ahalegin handi bat egin behar da arteari espazio eta denbora bat eskaintzeko, produktiboa ez den jarduera bati eskaintzen baitiozu. Eta horrek eguneroko bizitzan arazo batzuk sortzen ditu.

JM: Diva sen bat duzula iruditzen zait. Azken boladan, ordea, ez dut horren agerian ikusten, zer iritzi duzu?

JG: Arteak beste errealitate batzuk sortzeko aukera ematen du. Artearen bidez zu ugari eraiki ditzakezu; ez da zientzia bat, posible egiten du gezur baten bitartez egia esatea. Horrek, nire ustez zerikusia du zuk aipatutako diva sentitze horrekin, edo baita trabestismoarekin ere. Artearen historiak maskaren adibide asko eman dizkigu. Zure galderari erantzunez, esango nuke momentu batzuetan mozorroaren behar handiagoa duzula eraikitzeko, eta beste batzuetan ez hain handia.

JM: Marrazkiak eta argazkiak askotan dituzu esku artean sortzeko garaian, zergatik?

JG: Nire artearekiko harremanak irudia du protagonistatzat. Azken finean, txikitatik izan dut interesa irudian eta nire background-a pop kulturari dago: bideoklipak, marrazki bizidunak, pelikulak, telebista... Beti gertu ditut. Egun, lanean nagoela ere, askotan pelikula bat edo programak jartzen ditut, soinurik gabe. Irudiak manipulatzeko gustatzen zait, ez dut haiek erabiltzeko beldurrik. Gainera, argazkilaritza nire inguruan txikitatik izan dudana arte-adierazpen profesional bakarra izan da, nire aitona eta osaba argazkilaria baitziren.

JM: Tabakalera egoiliar izan zara 2019an; Kalostran, berriz, 2015ean. Alderatu bata bestearekin.

JG: Kalostrako esperientziak gauza asko eman zizkidan prozesu artistiko bati aurre egiteko. Fakultatean irakasleak ez dira artistak, irakasleak dira. Hori ez da ez txarra, ezta ona ere, baina artista izan nahi duzunean berebiziko garrantzia du artista den erreferente bat izatea.

Bestalde, Kalostran ulertu nuen artearenganako dudana konpromisoa, eta baita prozesu bat nola aurrera eraman ere. Fakultatean beti lana testuinguru batean dago, baina bizitzan ez. Prozesu batek izan dezakeen zentzugabekeriari aurre egiten ikastea zaila da. Askotan lan-prozesu luzeak ezerezean gelditzen dira.

Tabakalerako egoiliar esperientzia ezberdina izan da, zenbait muga aurkitzen dituzu, rol bat bete behar duzu eraikinean. Hala ere, oso positiboa izan da niretzat: espazioa eta denbora ematen dizu, bi elementu oso garrantzitsu sorkuntzarako.



Egilea – Jonan Maioz Basterretxea

JM: Mundua pikutara doala imajinatu, Chico y Chica-ren Fin del mundo kantaren antzera. Zein artelan eramango zenuke zurekin ihes egiteko espazio-ontzian, bakarra aukeratzekotan? Zure lanek ez dute balio, noski.

JG: Gertukoa den lan bat hautatzea gustatuko litzaidake, harreman afektiboa sentitzen dudana bat. Itziar Okarizen How d'ye do? buruan dut azkenaldian. Honetan, Itziarrek «eskerrik asko» esaten dio mikroari behin eta berrin, hainbat erritmotan eta erdi makurtuta. Gustatzen zait duen umore-ukitua, barrea ateratzen zaizu ikusten duzunean, eta ezaugarri arraroa da artean umorea, poza, topatzea. Ikusi ditudan erakusketetan, Itziarrek bideoa espazioaren amaieran edo sarreran jartzen du (gogoratzen dut Bilboko Carreras Mugica galerian egin zueneko), eta interesgarria da nola bideoak egituratzen duen espazioa, eskultura bat bezala funtzionatzen du zentzu horretan: nahiz eta edozein lekutan jar daitekeen, badirudi espazialtasun konkretu batzuk hobeto egokitzen zaizkiola.

JM: Aurreko galderaren egoera berean, espazio-ontzian Egiptoko esfingea sartzeko toki ere edukiz gero, antzinaroko zein objektu sartuko zenuke?

JG: Azkenaldian Egiptoko Tell-el Amarnako eskultura izugarri batekin izan dut obsesio txiki bat. Louvre museoa jartzen dion izena asko gustatzen zait: Emakume baten gorputza. Segur aski, Nefertiti. Izugarria da zer trataera ematen zaion daraman tolesturaz beteriko soinekoari, gorputza biluzik erakusten da baina, aldi berean, beste materialtasun bat ematen zaio gardentasun-efektuen bidez. Nahiz eta Amarna Aroaren erakusgarria izan, aparteko estiloa du.

JM: *Zer da baldarkeria, artea parean jartzen zaionean?*

JG: *Niri trebezia ez zait interesatzen, beraz, baldarkeria elementu presente bat da. Ikusle moduan, ez zait inoiz gehiegi interesatu trebezia, ez zinean, ez musikan... eta artean ere ez. Interesatzen zaidan trebeziak zerikusia du zerbait era arraro edo berri batean formalizatzearekin, akademizismotik urrun. Nork bere teknika asmatzea baloratzen dut, ez teknika batean espezialista izatea.*

===